


ELKARRI LAGUNTZEN**2. "NI" mezuak**

Harremanak **elkarren artean eraikitzen** dira. Harreman onak izateko, garrantzitsua da pentsamenduak, iritziak eta sentimenduak modu egokian adieraztea eta horretarako bideak zabaltzea, ohitura bihur dadin. "NI" mezua erabiltzeko ohitura izateak norberari laguntzen dio nahiak eta sentimenduak modu egokian adierazten eta taldekideei portaerak egokiak izaten, eta modu horretan harremanak sendotzen eta **taldea eraikitzen** laguntzen du.

Jarduera hau egin baino lehen, lagungarria izan daiteke  ariketa egitea, giro lasaia egon dadin eta horrelako ariketak egiteko ohitura har dezaten.

HELBURUAK

- Sentimenduak eta nahiak modu egokian adieraztea.
- Gelako giro onaren alde egitea.

GARAPENA

Irakasleak azalduko die harremanetan sentimenduak eta pentsamenduak adieraztean oso lagungarria izaten dela nork bere barrutik hitz egitea beste batzuen ahotik egin beharrean, nor bere sentimenduz jabetzea eta horiek egoki bideratzea. Adibidez, esan beharrean "Oso gaizki portatu zara nirekin, ez didazulako deitu", hobe da esatea, esate baterako, "Triste sentitu naiz deitu ez didazunean".

Ikaskide baten portaera batek sentimendu desatsegina eragiten dien bakoitzean, "Ni" mezua idatziko diote, honelako eskemari jarraituz:

.....nean,
sentitu naiz eta
nahi dut.

Adibidez, "Hitz egiten ari nintzela burla egin didazunean, minduta sentitu naiz eta nire iritzia errespetatzea nahi dut".

Ikasle bakoitzak "Ni'mezua" eranskinaren antzeko bat izango du eta, hor, gurutze batekin markatuko ditu bidalitako eta jasotako "Ni'mezua" k. **BAT karpeta pertsonalean** gordeko dute.

Irakasleak ikasleei gogoraraziko dizkie egindako GURE ARTEKO HARREMANAK blokeko jardueren helburuak: emozioak eta nahiak modu egokian adieraztea eta gelako giro onarekin BAT egitea.

Arbelean, denon artean, esaldi hau osatuko dute:

Gela honetako ikasleakgara

Denok gustura egoteko..... egin dezakegu eta
.....egingo dugu.

Irakasleak argazkia aterako dio eta korridoreko **BAT panelean** itsatsiko du, beste geletan ateratakoekin batera.

DENBORA

30 minutu

BALIABIDEAK

- Eranskina: "Ni mezuak"